## gaurkoan

Paulo Agirrebaltzategi (*)

# *Euskarak mugarik ez! mugarik ez ikastolak?*

*Bateginik* Kanpainaren slogan nagusia dela eta, zenbait sektore sozialetan kezkak, galderak, kontradikzioak eta aurkako eritziak ere bai sortu dira han eta hemen. Horiek direla eta, batenbatek kanpaina osoa zalantzan ipini nahi izan du, edota horri uko egin dio.

Zer dela eta?

Aldez aurretik esan beharra dago, edozeinek duela edonolako kanpainaren diseinua nahiz sloganak krritikatzeko eskubidea. Areago, beharrezkoa du nork bere eritzi kritikoa edukitzea. Horrek ez du berez kanpainaren indarra makaltzen, kanpainari hutsunea egiterainokoa edota kanpaina osoari aurka egiterainokoa ez baldin bada. Edozein kanpainak —gehiago herri baten hizkuntza nazionalaren eta eskola nazionalaren aldekoak— behar-beharrezkoa du partaidetza kritikoa.

Bestalde, «Euskarak eta Ikastolak mugarik ez» sloganak piztu duen kritika ez da puztu behar, sektore jakinetakoa delako eta mugatua. Horietako zenbaiten kritikak merezi duen errespeto eta guzti, kanpainaren helburuek, diseinu osoak eta sloganeek orokorki harrera oso ona eta zabala izan dute herritar gehien-gehienen aldetik. Hortxe dago *Bateginik* kanpainaren indarra.

Gainera slogan horri buruz sortutako zalantzak eta kritikak ere leku gehienetan eritzi eta gogo onez gainditu dituzte, kanpainaren osotasunari begiraturik.

### Slogana eta sloganak

Edonork daki publizitate-esaldia dela slogana, ahal denik iradokiorrena eta erakargarriena. Slogana ez da tesiren baten formulazio sintetiko eta zehatza. Askozaz hurbilago dago ideia eraginkor eta biziarekin, gaztelaniaz «idea-fuerza» esaten dutenarekin.

Slogantzat jaulkitzen den ideiaren eta asmoaren formulazioa alde askotatik kritika daiteke: literatura aldetik txarra delako, iluna delako, motela delako, nahasia delako, luzeegia delako... Hainbat aldetatik. Baina nekez zehaztasun kontzeptualik ez omen duelako. Seguruenik sloganari eskatzen zaion azken dohaina izango da hori. Tesiarentzat, berriz, aurrena da, seguru.

Bestalde, *Bateginik* bezalako kanpainan, ez dago slogan bakarra beraren soiltasunez hartzerik. Beste guztiekin batera balioztatu eta ulertu behar da. Horrela ikusirik, argi dago kanpaina honetan ikastolarekiko mezua «Euskal Eskola Nazionalak» argitzen duela batez ere; eta hau «Euskara Hizkuntza Nazionala» sloganak. Kanpaina honetan ez dago ikastolari buruzko mezua beste bi ideia eragile horietatik bereizterrik.

### Ikastola Euskal Eskola Nazionalaren bidean

Entzun izan dugu joan diren egunotan «Euskarak eta ikastolak mugarik ez» sloganean euskara ikastolarekin berdintzen dela, nolabait biak parekatuz. Ez dut uste berdintzen direnik; gertatzen dena zera da: ikastola ideia konkretuagoa dela euskara baino, eta orduan euskarari buruzko mezua ikastolak nolabait bere baitan irensteko arriskua duela.

Dena dela, argi dago kanpaina honetan ikastola ez dela beraren zentzu hertsi eta instituzionalez hartzen. Hori oso nabarmen dago hainbat aldiz publizitatean errepikatu den spot honetan: «100.000tik gora gazte ari dira egunero euskaraz bizitzen». Ikastola-ikastoletan dabiltzan gazteak baino askozaz gehiago dira horiek. Eta nahita jarrita dago hori horrela: beste eskoletan euskaraz irakasteko eta bizitzeko egiten den ahalegina balioztatzen delako, alegia.

Berriro esateko, gertatzen dena zera da: slogana ideia eraginkor, iradekior eta adierazkorra dela. Eta kasu honetan *ikastolak* eta *euskarak* ematen diote eraginkortasuna slogan osoari.

Ikastola bera «ideia eraginkortzat» hartzen da hemen, eta ez eskola-erakunde jakin eta bereizitzat, horrek hainbat balio handi baditu ere. Ikastola hitza Herri honek urte luzetan bere hizkuntza nazionala berreskuratzeko daraman ahaleginaren eta borrokaren *sinboloa* da: hor du bere indarra eta eraginkortasuna. Euskal eskolaren eta eskola herritarraren sinboloa da ikastola, bera izan delako aitzindari eta bultzatzaile urte luze eta zailetan.

Guzti horren sinboloa baldin bada ikastola, nekez egon daiteke ahalegin beretik bideratu diren bestelako eskolen aurka; guzti horien sinbolo integratzailetzat —ez instituzio integratzailetzat— hartu behar da ikastola slogan horretan, berorrek duen karga historikoarekin eta etorkizunerako irekitasunarekin.

Horregatik ikastolen aldeko dirua ez da biltzen hori nolabait finkatuta dagoen herrialdetarako; Nafarroarako eta Iparralderako da diru-bilketa, horietan ikastolak bete beharra daukalako, oraindik urte luzetan, Euskal Eskola Nazionalaren bidea ebakitzen bere aitzindaritza eta eragipena.

Nafarroan eta Iparraldean ere erakunde indartsu bihurtu beharra du ikastolak. Euskal Eskola Nazionalaren benetako sinboloa haietan ere noizbait izango bada: Sinbolo eraginkorra.

(*) *Euskal Kulturako langilea*

## puntaren puntan

### *Miedo*

Cuando algún bienpensante, en plena racha de adolescente ingenuidad acordó la creación de una comisión de investigación del tráfico de influencias, sus señorías, los de ahora, los ex y otros muchos más, temblaron.

No pusieron el grito en el cielo y disimularon su congoja para no dar el cante, para no levantar la liebre, pero iniciaron sus maniobras para conseguir el total descafeíne de una comisión muerta antes de nacer. Asustados ante el alud que se les avecinaba, bloquearon su funcionamiento, pero pusieron en evidencia el temor que tienen a que les investiguen una honradez expuesta en mil campañas, y otras tantas veces prostituída.

De acuerdo con las nuevas normas, impulsadas casualmente por el CDS y el PSOE, los ex altos cargos y ex parlamentarios no deberán ser obligatoriamente investigados, y entre los que aún no pertenecen al grupo de los ex, porque ejercen el poder ahora, la investigación estará supeditada a la voluntariedad del presunto infractor.

A uno le viene a la cabeza una reciente declaración del Ministerio del Interior efectuada el mismo día en que unos policías eran juzgados por el caso Nani, acusados de dar muerte a una persona y dirigir una mafia policial. La nota, recogida en los medios de comunicación, decía que a partir de ahora el citado Ministerio permitirá que delincuentes comunes rehabilitados puedan llegar a formar parte del Cuerpo de Policía. Cosas de la vida. J.C.GOTXI

## hemeroteca

### *El general Casinello*

*(Vicente Copa, «El Correo Español», 26-4-88)*

Ha cundido la interpretación según la cual, el nombramiento del general Andrés Casinello como capitán general de la Región Pirenaica Occidental -en cuyo ámbito se integran tanto el País Vasco como Navarra- responde a una intencionalidad política que trasciende de una mera designación militar y que se conecta con la actual situación política en el País Vasco y con la futura inmediata.

(...)Se le imputa que durante su estancia como jefe de los servicios de información de la Guardia Civil, aparecieron los criminales del GAL. Tal imputación -porque se trata de una imputación- coincide curiosamente cuando desde aquí se reclama la presunción de inocencia en favor de profesionales del derecho acusados generalizadoramente de connivencia con los terroristas. ¿No tienen derecho a la misma respetabilidad y presunción de inocencia un teniente general del Ejército?.

(...)

Algunos, con exquisita sensibilidad a lo que se ve, han quedado desosegados con este nombramiento. Sin embargo, el tiempo puede propiciarles una sorpresa. Si, como se reclama y sería lo más conveniente, el Gobierno intenta una salida no traumática para la violencia terorista en el País Vasco, resultaría extraordinariamente útil la presencia en la capitanía general de la Región Pirenaica Occidental de un general conocedor de la situación vasca, capaz de explicarla a quien reclame explicaciones en su ámbito profesional, desde la seguridad de que este general asume, sin duda alguna, la misión que a las Fuerzas Armadas encomienda el artículo octavo de la Constitución: defensa del orden constitucional y de la integridad territorial de España.

### *La difícil solución del secuestro*

*(Pedro Conde Zabala, «El Diario Vasco», 27-4-88)*

El secuestro de Emiliano Revilla estaba a punto de resolverse favorablemente para el industrial soriano, que se encuentra en poder de ETA desde el pasado 24 de febrero. La solución, como en anteriores sucesos parecidos, pasaba por el pago de una elevada suma y la posterior liberación de la víctima. Desde hacía varias semanas se tenía la creencia de que la familia había conseguido ponerse de acuerdo con ETA.

(...)

Logrado el primero de los propósitos, que ETA no disponga de la millonaria cifra, el Gobierno parece decidido a impedir que los secuestradores pongan un trágico final a la vida de su rehén. Por esta razón, siempre según las informaciones más recientes, el Ejecutivo no ha echado las campanas al vuelo y ha tratado de desvincularse de la operación de Bayona, aduciendo que se trata de una gestión exclusivamente francesa. Ahora, es la familia de Revilla la que se encuentra en un delicado trance porque ha podido perder buena parte de sus esperanzas, precisamente cuando más confiaban en la liberación. Sin buena parte del rescate exigido, después de más de dos meses de secuestro y con la moral destrozada pasarán momentos difíciles.

### *Golpe a ETA; golpe a Revilla*

*(«Diario 16», 27-4-88)*

Todo indica que la Policía francesa, en perfecta sintonía con la española, ha interceptado los setecientos millones del rescate de Emiliano Revilla y detenido al principal depositario. Técnicamente un buen servicio, sin duda, pero que habrá puesto en ascuas a la familia del industrial soriano, más de dos meses cautivo, que, seguramente, contaba ya las horas para la liberación.

(...)

Nadie puede decir que evitar la extorsión e impedir el tráfico ilegal de divisas no sea misión de los poderes públicos. En este caso, además, se trata de un lance característico de la lucha antiterrorista: procurar cerrar a los activistas el grifo del dinero. Pero no es menos cierto que estamos ante el drama silencioso y tremendo de un ser humano, de su familia y de sus amigos, que no tienen la culpa de nada. Emiliano Revilla no puede ser tratado como un objeto más en medio del campo de batalla, utilizado por unos y por otros como simple punto de referencia.

(...)Tres de cada cuatro españoles consultados son partidarios de que la familia Revilla pueda pagar el rescate, y algo más de la mitad opina que el Gobierno debería facilitar el trance.




"Cambio 16"